

Emantzipazioaren aldeko bortxaren ikerketa Joxe Azurmendirengan

Fito Rodriguez

Euskal idazlea eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea eta ikerlaria

Politika-arloan bortxari buruz Jose Azurmendik eskainitako gogamen filosofikoak (*Demokratak eta biolentoak*, 1997; *Oraingo gazte eroak*, 1998; *La violencia y la busqueda de nuevos valores*, 2001; *Barkamena, Kondena, Tortura*, 2012) testu bat du oinarritzat: *Gizaberearen bakeak eta gerrak*, 1991. Aipatu liburuaren ardatzetariko bat etologian datza eta, zehazkiago, K. Lorenzen irakurketan. Hori dela eta, Azurmendiren pentsamendu politikoa, etikaz eta antropologiaz harago, gizakia ulertzeko egun irekitzen ari den bide berri baten (Wrangham, 2019) aitzindaria dela esan eta froga dezakegu.

GAKO-HITZAK: Joxe Azurmendi · Bortxa · K. Lorenz.

Investigation of violence in favor of emancipation in Joxe Azurmendi

Jose Azurmendi's philosophical thoughts on violence in politics (*Democrats and Violents*, 1997; *Mad Young People*, 1998; *Violence and the Search for New Values*, 2001; *Forgiveness, Condemnation, Torture*, 2012) are based on a text: *Gizaberearen bakeak eta gerrak*, 1991. One of the main points of the book is ethology and, more specifically, the understanding of K. Lorenz. Therefore, we can say and prove that Azurmendi's political thought, beyond ethics and anthropology, is pioneer of a new path that is opening today for understanding the human being (Wrangham, 2019).

KEY WORDS: Joxe Azurmendi · Violence · K.Lorenz.

1. Hastapenak

Gizaberearen bakeak eta gerrak (1991) liburua Lontxo Oihartzabal irakasleari eskainia da, bere garaian Alemanian zegoena Psikologia ikasten. Sasoi bertsuan, berriz, Filosofia ikasten Azurmendirekin batera, J.M. Mujika zegoen han. Askotan hango euskaldunak elkartu ohi ziren eztabaidatzeko, hirurogeita hamarrek hamar-kada erdia zen eta Oihartzabal zela medio iritsi zen K. Lorenzen berri Azurmendirengana, eta hura dela kausa, Azurmendik idatzitako liburua Oihartzabali eskaini zion.

Antzerakoa gertatu zen J.M. Aranalde haraino heldu zelarik; izan ere, orduko eztabaida haietatik sortu baitziren Azurmendiren *Zer dugu Orixeren kontra?* (1976) eta *Zer dugu Orixeren alde?* (1977) liburuak.

Gizaberearen bakeak eta gerrak (1991) liburuak denbora asko behar izan zuen kaleratu arte. Izan ere, liburu haren oinarria eta aurrekaria zen *Gizona abere hutsa da* (1975) izeneko testua Lontxo Oihartzabalek Erein argitaletxera eraman zuen liburu moduan kalera zezaten, baina, urte asko baztertuta egon ondoren, Elkarrek *Gizaberearen bakeak eta gerrak* izenburuarekin argitaratu zuen ia bi hamarkada beranduago, 1991n.

Beraz, aipatu liburuaren sorreraren testuingurura hurbiltzeko aurreko mendeko hirurogeita hamarrek hamar-kadaren erdialdera jo beharra dago, zeinean, Alemanian, ezkerren pentsamendua Rote Armee Fraktionek (RAF delakoak) astinduta zegoen eta Euskal Herrian (baita Europa osoan ere) ETako ekintzaileen aurkako Burgosko Epaiketaren itzalak (1970) iraun egiten zuen.

RAFeko buruzagiak Baader, Ensslin eta Meinhof 1972an atxilotu zituzten. Oihartzabal 1973an Alemanian zegoen eta bortxaren erabilera politikan hantxe bildutako euskaldunen artean ezbaian zegoen, beste gaien artean.

Dudarik gabe, adibide hori Azurmendiren ekoizpen filosofikoaren ezaugarrietako bat argi ikusteko baliagarria da. Beste filosofoek, edota idazleek ere, haien gogoetarako akuilu-testuak eta iruzkinak erabili ohi badituzte ere, Mikel Azurmendik edo Joseba Zulaikak kasu, Azurmendiren abiapuntua lagunaren arteko polemika eta diziplinartekotasuna izan ohi dira, berdin Arantzazun, Alemanian edo Jakin taldearen bileretan, horregatik, haren izkribuetan, garaian garaiko gaiak aurkitzeaz gain, izen propioa soila baino areago, nolabaiteko egiletza kolektiboa ere egon badago.

Horrekin batera ez da ahaztu behar aipatu gai haietariko asko, bortxaren erabilera politikoa, adierazpen askatasunaren mugak eta abar, letren mundutik guztiz aparte egon direla, debekaturik edo zentsuraturik, euskaraz idatzi diren batzuk salbu. «Euskara da gure territorio libre bakarra» idatzi zuen idazle jazarriak eta Azurmendiren kasuan behintzat, hemen aztertzen ari garen moduko gogoetak gazteleraz kaleratzea pentsaezina zela gogoratu beharra dago. Dena den, *Gizaberearen bakeak eta gerrak* liburua idatzi eta hogeitaz beranduago argitaratu zuten, hasierakoa ez zen beste argitaletxe batean, beste izenburu batekin eta beste izen batekin sinatuta (*Gizona abere hutsa da* «Lazkano Mendizabal» ezizenez sinaturik kaleratu baitzen). Beraz, euskal irakurleria arruntak denbora dezente pasa behar izan zuen orduko pentsamendu hura eskuratu arte.

Horrek erakusten du Joxe Azurmendiren irakurketa berritu horiek daukaten garrantzia, zeren gogoeta proskritoak eta izkribu isilduak izan ohi dira berarenak, euskaraz izan arren, hedapen gutxikoak eta, halere, haiek ere jazarriak (J. Juaristi, F. Savater, A. Arteta eta abar).

Aipatu behar da azken horien biolentzia politikoari buruzko diskurtsoa eskasa izan dela oso. Funtsean, Christina Werckmeisterrek dioen bezala (2019/11/26 in *Doce Miradas* izeneko blogean), gaia filosofian kokatu beharrean deskribatzen duten bortxa «indarkeria» ohi da beti, erabilitako psikologia-mekanismo tranpati bat dela medio. Beraz, arazo politikoa ongiaren eta gaizkiaren arabera birkokatzea da, «trikimailu psikologiko» moduko bat erabiliz, filosofikoki aztertzeke premiarik gabe eta konbentzitzeko jarrera bat behartuz «kondenamania» gizentzeko: «Indarkeria beti gaizki dago eta gizakiak etikoki arbuiaitu behar du ezinbestean» diote J. Juaristik, F. Savaterrek edo A. Artetak.

Argudio horrek banakako portaera morala eskatzen du arazo politiko kolektibo bat konpontzeko. Christina Werckmeisterren iritziz, aipatu argudio horren lehen arazoa da ustezko indarkeriak ez duela zerikusirik protagonistaren joera moralarekin, baizik eta beraren jarrera soziopolitiko nagusiarekin. Hemen gertatu dena da *moral reframing* izeneko pertsuasio-erretorika klasikoan sartzen gaituztela diskurtso horiek. Filosofiarako gaia litzateke: indarkeria onartezina da ala batzuetan beharrezkoa? Eta, hala izatekotan, ez litzateke inolako «keriarik», bortxa bakarrik baizik.

Komunikazioari dagokionez, deseroso ez egoteko helburua betetzen du proposamen faltsu honek, eta hori bera arazo bat da (argudio honen bigarren arazoa), inor ezin baita erosotasunean gelditu indarkeriaren benetako dimentsioa ulertzen duenean (bortxaren monopolioaz ari naiz...). Baina, filosofikoki pentsatzeko behintzat, indarkeria ez da bortxaren sinonimoa, eta Joxe Azurmendiren lanak horixe bera gogorarazi digu arazoa behar bezala birkokatuz, etikaz nahiz antropozentrismoaz harago, alegia.

Orain, bada, haren ikerketa-lan guztiak denon eskura jartzeko aukerak egongo dira eta, finean, gogamena askatzeko ekarpenak ere izango direlakoan nago.

Haritz Azurmendi Arruek (2019) dioen bezala, Joxe Azurmendik, nazionalismoaren teoriei buruz gutxi aritu arren, nazio kulturalaren teoria ikertzeko, zehazteko eta bideak proposatzeko, lan handia utzi digu. Halaber, Joxe Azurmendik, giza portaerako zientziak jorratu ez arren, hala gizakiok nola gizarteak eraldatzeko bideak aztertzerakoan, egun berriak izanda ere, aski onarturik dauden teoriak bere garaian aurreikusi zituela uste dut.

Begira diezaiozun, bada, *Gizaberearen bakeak eta gerrak* liburuari.

2. *Gizaberearen bakeak eta gerrak*

Nor zen Lazkano Mendizabal? *Gizaberearen bakeak eta gerrak* liburuaren aurrekaria izan zen *Gizona abere hutsa* da 1975ean argitaratu zuen idazle bera: Joxe Azurmendi, jakina. Franco diktadorea hil zen urtean kaleratutako liburuaren egiletza ezin zen gutziz publikoa egin eta, halaxe, ezizenez sinatuta agertu zen.

Gero etorri ziren *Demokratak eta biolentoak*, 1997an, eta *Euskal Herria krisian*, 1999an, moralismo politikoaren meditazioak izan daitezkeenak, baina, haien oinarrian, aipatu *Gizona abere hutsa da* testua daukagu. Hau da, bortxari buruzko Etikaz (*Espainiaren arimaz* liburuan (Elkar) 2006an Mikel Azurmendiri argitaratutako kritikak, esaterako, lehendik *Gizaberearen bakeak eta gerrak* liburua 80. eta 81. orrietan agertzen dira) nahiz Antropologiaz (Joseba Zulaikaren *Violencia vasca: metáfora y sacramento* delako tesian) haragoko pentsamendu filosofikoa etologian oinarrituta. Moralaz gaindi eta mota guztietako antropozentrismoetatik at, Joxe Azurmendi hurrengo urteetan osatzen joango den biolentziari buruzko diskurtso filosofikoak aipatu liburu horren 175. orritik 195. orrira, «Abereen agresibitate naturalaz» izeneko atalean, dauzka sustengu eta oinarri, nire aburuz.

Horrek ez du esan nahi liburuko beste ataletan Lorenzi buruzko erreferentziarik ez dagoenik. Aitzitik, 126. orrian edo 172.ean, adibidez, K. Lorenz agertzen bada ere, aipuetan izaten da, J. Piagetek Garapen Psikologiaz idaztean erabilita, hain zuzen. Izan ere, bortxari buruz aurreiritzirik gabe hitz egin ahal izateko, ikerketa etologikoez eta, zehazki, K. Lorenz irakasleari buruz hitz egin beharra dago, urte haietan halaxe zen behintzat.

Egun, ildo beretik eratorritako beste ekarpen batzuk (Eldakar, O.T.; Farrell, D.L. eta Wilson, D.S., 2007; Peter Turchin, 2015 eta, bereziki, Wrangham, Richard (2019) *The Goodness Paradox*) baditugu, eduki. Horrela, agresibitatea, alde batetik, banakako sentzat hartzerik badago, portaera sozialari dagokionez agertzen dena eta, harengan, bi maila dialektiko gurutzatuta daudela agertzen da argi eta garbi.

Dena den, etologiak eskaintzen digun ikuspegira soilik murriztea planteamendu eskasa litzateke. Nahiz eta etologiak funtsezko pisu espezifiko bat izan oldarkortasunari buruz aritzean, ezin dugu ahaztu bortxaz pentsamenduaren tradizio luzea badagoela eta hainbat ikuspegitatik ere gai hori jorratzerik badagoela edo, gutxienez, alderdi ezberdinak aipatzea ezinbestekoa zaigula.

Gizona abere hutsa da liburua orduko Rolf Denkerren (1973) testu interesgarrian bortxari buruzko hurbilketetarako ikuspegi panoramiko bezain zabala eskaini zitzaigun. Alde batetik Kant (ohituren metafora formarako oinarriak direla eta), Darwin, Marx, Engels... eta, bestetik, Adler eta psikoanalisi, Yaleko eskolaren edo W. Reichen ikerketak direlarik, gaiaz ikuspegi guztiz etologikoa deituko genukeenean erori gabe, bortxari buruzko gogoeta aurkitzen da Joxe Azurmendiren liburuan Denkerren hartan bezainbeste, gutxienez, eta, gehienak, gainera, Joxeren abileziaz idatziak eta jorratuak.

Kontua ez baita etologiaren aurretik bortxa maila teorikoan txertatuta agertzen ote zen edo ez, goian aipaturiko ikerlari horietako bakar batean ere ez da hori zalantzan jartzen, eta, horrez gain, kontrakoa aipatzea gehiegi litzateke, bestalde, bortxa aspaldi aztertua dagoela, alegia. Kontua da argi dagoela bortxaren gaia, teoriarik merezi duen garapen teorikorik gabe, *a priorizko* ikuspegi motz eta moraletan oinarritu ohi dela Mendebaldeko pentsamendu judeo-kristauan Azurmendiren ustez eta, jakina, nik bat egiten dut horrekin.

Freudek, bere aldetik, lehen mailako pultsioak aztertzean, bere ikuspegi psikoanalitikoak «plazeraren printzipio»ra jo zuela aitortu zuen, heriotzak behar zuen arreta ahaztuz. Berarentzat, beraz, bortxa lehen mailako pultsioa da, gizabanakoari berez dagokiona, nahiz eta ohiko interpretazioa psikoanalitikoak, zoritxarrez, ez ohi duen behar bezala sakondu bere ikerketan.

Lorenzentzat, berriz, agresibitatea izango da barne-egitura indibiduali eutsi eta egitura soziala ahalbidetzen duen sena. Halaber, barne-egituraren bilakaera eta egitura sozial horren bilakaera ahalbidetzen dituena, beraz. Ospe handia eta txarra eduki du Karl Lorenzek bere jarrera pertsonalei buruz (nazismoarekiko gaztetako loturak zirela eta, baina zer egin lezake testuinguru hartako gazte batek galde dezakegu edota zer egin zuen, esaterako, P.K. Feyerabendek?) eta «agresibitatearekiko buruzko» bere idatziak direla eta, hura ere «kondenatua» izan ohi baita. Horrenbeste, adibide gisa, *L'Espresso* egunkariari orduan eskainitako elkarrizketa batean (*Conversaciones sobre la nueva cultura*, 1975), bere inguruan ikusten zituen salaketez galdetu ziotenenean, honela erantzun zuen:

Neure buruari galdetzen diot ea oldarkortasuna berez ez dela txarra izaten agerraraztea izan ote den liburu hau nire aurkariak testua behar bezala ez irakurtzera behartu dituena. Agresibitatea, barkatu!, haren apologia egitea ere!, baina, justu kontrakoa azaldu nahi izan dut nik, zeren eta nire liburuetako orrialde guztiak bete ditut indarkeria eta gerra sen normalaren endekapena direla azaltzeko.

Gizakiak ezagutu behar duen barne-indarren existentzia frogatzen saiatu naiz. Ez al da ezagutu behar indar hori?. Etologiaren aurkariak askotan leporatzen digute antidemokratikak eta arrazistak omen garela, eta, are argiago gera dadin, galdera hau egiten dute: tradizioak eta ohiturak asko azpimarratzen dituzu, beraz, tradizionalistatzen joko duzu zeure burua?

Eta, beste alde batetik, ulertzen ez nautenez, komunista edo maoista deitu ohi didate, baita nazionalista edo faxista, edota nihilista ere; izan ere, ez da existitzen nik babestuko nukeen politikaririk, salbu eta Txekoslovakiako Dubcek zena, hura nire botoarekin kontaktu duen erregimen bakarra izan da. Etologiaren aurkako kritikariek, oinarrian, benetan zientziaren ikuskera zorrotzegia dute beharbada. Ez dute onartzen jokabide jakin batzuen arabera, eta behar jakin batzuk behar direla medio, gizarte-egiturak eta gure kasuan mikro-sozialak erabat aldatu ahal izateko aukera, agresibitate izeneko sena ulertu beharra dagoela (160.-161. or.).

Hala eta guztiz ere, animaliek historia eduki ezin dutenez, eta horrexegatik, etologia bakarrik gizakiaren historiaren eraikuntza ulertzeko ezin dela aski izan egia da Lorenzentzat, eta etologiarentzat oro har, agresibitatearen senak eragin handiegia duenez, animalia-kulturetan gertatzen dena gizartera estrapolatzerik badagoela.

Hori dela eta , Joxe Azurmendik honakoa dio (*Gizaberearen bakeak eta gerrak*):

Naturak ez bait du gizona piztia baizik egin: aiduru beti, etsaiak erasoko ote dion. Atzar-atzarri beti alarma, defentsarako nahiz ihes egiteko tximista batean. Hori da naturak eman diona: Natura edonon den borrokan, berak ere borroka egiteko eta irauteko aparamena. Naturak natura egin du gizona. Ez «pentsamendu», arrazoimen.

Hau da: «gaitz» horien iturburu bila, kausa post-natural edo antinaturalen bat aipatzen duten teoriak (a), natura eta kultura bi mundu ezberdin eta apartekotan ebakitzen dituzten hipotesi dualistek (b), edota gizona sortu eta gerozko «erortza» edo «bekaturen» bat imajinatzen duten asmazio guztiek (c), funtsean «gaitz» haien agerpen konkretu batzuetarako okasioak edo aitzakiak bakarrik begiesten dituztela. Ez iturburuak berak. Hauek naturan bertan dauden sustraiak dira, eta sustraiok gizonaren historia guztira hedatzen dira (129. eta 139. or.).

Pentsamendu hori garatzen da liburu bereko (*Gizaberearen bakeak eta gerrak*) «Haurren agresibitateaz, eta guri zer», eta, batik bat, «Agresibitatearen kondenez eta gizarte perfektuaren utopiaz» izeneko azken bi ataletan (konklusio gisa uler daitezkeenak). Handik aurrera, bere *Manifestu atzeratuaren* hasieran agertzen ziren kondinari buruzko kritikak:

«Panfleto bat idatzi nizun kondenuatu nahi banauzu:...».

bortxaren erabilera politikoaren kritika bihurtu direlakoan nago. Hala *La violencia y la búsqueda de nuevos valores* (2001), nola *Barkamena, Kondena, Tortura* (2012) liburuetan antropozentrismoa, alde batetik, eta ikuspegi etikoa, bestetik, etologiatik datorren gogamen filosofikoaz gainditzen dira.

Izan ere, bi testu haietan Kontzientzien kontrolaz hitz egiten digu Joxe Azurmendik, hasieran Elizaren bitartez egiten zena eta, orain, zuzenean, Estatuak egiten duena, baina, bortxaren monopolioa berarentzat gordetzen duen bitartean, gizakia- ren berezko agresibitatea kondenuatuz betiere. Kontuan hartu gabe, gainera, *Manifestu atzeratuan* poetikoki azaldu bezala, bortxa ere emantzipazioaren aldekoa izan daitekeela.

Beraz, *Manifestu atzeratua* zentsuratutako idazkian Joxek berak zioen moduan:

Nik ez dut bakerik nahi zeren bakea ez da libertatea... ta nire herriari indar egiten zaio... libertatea etorkizunean dago... libre izan nahi dugu... gizona ez da ideia bat... zergatik ez aitortu? Gizona mendian dabilta otsoa bezala da... gizon honek ez du hil nahi... eta ez du hilda bizi nahi ere, librea nahi du...baina libertatea ez merezi, irabazi egin behar da... orduan bai, eguzki zaharrak argi berria emanen du...

Eta ideia hori da Richard Wrangham Harvardeko primatologoak eta katedradunak liburu zoragarri batean argitaratu duena, *The goodness paradox*, non borroka armatuak moralitasunaren ateak ireki zizkiola dioen. Beta arrak hiltzen hasi ziren eta A arraren kontra oldartzen, eta horrek errukiago eta kooperatiboago egin zituen, eta, bide batez, tiraniatik askatu zituen.

Harriak jaurtitzea asmatu zenean, urrutitik hiltzeko gaitasunaz, indar fisikoan oinarritutako hierarkiak amaitu ziren (Dabid eta Goliaten elezaharrak kontatzen duena). Oso hipotesi xeblebre bat dirudi, baina ar indartsuago bati aurre egin behar badiozu, ez dago beste biderik. Buruan emandako harrikada batez irabaz dezakezu bakarrik. Tiraniaren aurkako borroka armatua, gizarte bidezkoago baten sorrera bermatzen duen eboluzio-bidea baita Richard Wranghamentzat. Zer indar eragilek bihurtu gintuen gizaki gure lehengusu ebolutiboengandik at, esaterako, neandertalez gainerik?

Richard Wranghamek gizaki bakoitzaren barruan «natura basatia» aipatzen du, Lorenzen agresibitatea, Azurmendiren otoa (ez Plautorena, ez Hobbesena, ezta Freudena ere, kasu!): gure izaera, haren ustez, animalia-biolentzia batean sustraituta dago, denboraren poderioz eraldatu dena egungo gizakia sortzeko. Giza arbasoak elkarrekin konspiratzen hasi zirenean euren komunitateetan gizon oldarkorrek hiltzeko, Wranghamek «koalizioaren eraso proaktiboa» deitzen duena medio, gizateria abiatu zen bere osotasunera.

Eraso proaktiboa pausatua bezain aurrez pentsatua izaten da, eraso errektibotik bereizten duten ezaugarriak izanik, azken hori oldarkorra besterik ez dena, berehalako mehatxuari erantzuten diona. Emozio beroak eraso errektiboa bultzatzen du: norbaitek iraindu egiten zaitu eta zuk kolpe batekin erantzuten diozu. Erasoa proaktiboa, aldiz, «hotz-hotzean planeatu» ohi da.

Gizarteak eskolak, medikuntza, musika eta antzekoak sortu ditu, egilearen ustez, gizakiak konfiantzaz laguntzeko gaitasuna garatu du, eta, haren aburuz, horrela izan da Pleistozenotik, baita indarkeria-eta ankerkeria-ekintzak eginez, gizarte hobea goa erdietsi ere. Aldi berean indarkeriaren neurobiologia ere ikertu du, amigdala, aurrealdeko azala eta garuneko beste egitura batzuk aztertuz. Ildo honetatik domestikazioarekin lotutako ezaugarrien sindrome batek gizakion eta beste espezie batzuen bilakaeraren hipotesia frogatzeko moduak ematen ditu. (*How to Tame a Fox and Build a Dog*, Trut eta Lee Alan Dugatkin, 2018).

Planteamendu hura aipatzen ari garen sasoian hasi zen zabaltzen (Tomás R. Fernández. 1978) eta gaur egungo J. Mosterinengana iritsi da.

Antzerako hipotesia euskaraz ere zabaldu zen bere garaian (Alvarez Santa Cristina, 1985):

Ezin uka dezaket begien aurrean egunero ikusten eta pairatzen dudana biolentzia; zer egin?... ez dugu ukatzen biolentzia politikoko armatu jakin baten alde gaudenik. Argiro eta ozenkiro aldarrikatzen dugu hitzen eta bake bidezko protesten mintzoari uko egiten dionari indarraren eta bortxaren errekurtsoak baino ez zaizkio gelditzen (71.-79. or.).

Eta horra iristeko erabilitako argudioak guztiz filosofikoak izateaz gain, iturburuak Joxe Azurmendik bere *Gizaberearen bakeak eta gerrak* liburuan adierazitakoen berdintsuak dira, Lorenzen aipu zehatza eta guzti:

Filosofiaren historian zehar, lehenik, eta konportaerarekiko zientziarenean, gero, eztabaida sortu da honi buruz. Batzuk uste izan dute gizakia otso baten modura oldartzen zaiola gizakideari berari, eta jokaera hori gizon-emakumeari berezko datzekion zerbait bailitzan. Freud, Konrad Lorenz, Nino Tinbergen...

Egun eta hemen erreferentzia hauek hona ekartzeak gehiegizkoa badirudi ere, gogoratu beharko genuke *Giza Eskubideen Aldarrikapenak* matxinatzeko eskubidean hartu ohi duela oinarria, zeinak, hitzaurrean, zehatz-mehatz, honela baitio: «Kontuan izanik ezinbestekoa dela giza eskubideak zuzenbidezko erregimen batek babestea, gizakia-tirania eta zapalkuntzaren aurkako azken irtenbidea den matxinadara jo beharrean aurkitu ez dadin...»

Berez, 1948. urteko *Giza Eskubideen Aldarrikapenak* aurrekari bat baino gehiago dauzka: *Zuzenbide-eskari* ingelesa (1628), Estatu Batuetako Konstituzioa (1787) edota, Frantzian, *Gizakume eta Herritarraren Eskubideen Aldarrikapena* (1789), besteak beste. Aipatu 1948ko Adierazpen horren Hitzaurreak, bestalde, bidegabekeriari aurre egiteko abiaburu, eskabide eta are beharra (errebelamendu edo matxinatzeko eskubidea) finkatu du eskubide horien oinarritzat.

Nahiz Thomas Jeffersonek, Independentzia Adierazpena idatzi zuelarik, nahiz orduko Amerikako Estatu Batuetako Kongresuak, hura onartzerakoan, injustiziaren aurrean errebelamendu-eskubide besterenezina (1948ko *Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko* Hitzaurreak bere egin eta kolonialismoaren aurkako funtsezko abiaburu den horixe) ontzat eman zuten.

Jeffersonen idazkiak norbanako eskubideak jaso ez ezik, iraultza egiteko eskubidea ere aldarrikatzen zuen. Euskarri ugaritan zabaldutako testu horrek ondoko Frantziako Iraultzan eragin handia izan zuen, baita haien aurrekariak izan ziren Dideroten, Rousseuren edota La Boétieren *Discours de la servitude volontaire* izkribuetan ere, non Herri Matxinadaren aldeko deiadarra nabarmena zen.

1789an, Frantziako Erresumako Biltzarrean herri xumearen ordezkariak («Hirugarren Estatu» izenekoa osatzen zutenek) beren eskariei entzungor egiten zitzaie ikusirik (Erregeak eta Frantziako Erresumak Asanbladaren bilkura-orduko legebiltzarra debekaturik), erregetza abolitzeko prozesuari ekin zioten monarkiari berari amaiera emanez Errepublika sortzeko bidean. Nazio Biltzar Konstituziogile berriak, bestalde, *Gizakume eta Herritarraren Aldarrikapena* adostu zuen. Adierazpen horrek dio «jabetza, segurtasun eta zapalkuntzari aurre egiteko eskubideak» herritar orori zor eta bermatu egin behar zaizkiola.

3. Ondorioz, Joxe Azurmendiren otsoak ez dira Hobbesenak

Herri-kondairek, Plautok, Hobbesek, Freudek edota Lorenzek erabili ohi dute otsoaren erreferentzia bortxaz aritu ahal izateko, baina, bistan denez, esanahi ezberdinez osatu dute aipu hura. Oraingo honetan adierazitako hori dena zehazteko astirik ez izan arren, argi utz dezagun Lorenzen erabilera salbu, gainerako guztien erabilera literario-filosofikoek ezin dutela eduki portaerarekiko zientzietan eman ohi zaien trataera bera.

Aipatu guztiek, Lorenz izan ezik, gizakiaren eta gizartearen kultura Naturarekin kontrajarri ohi dute, hau da, gizakiak, eta gizarteak, bere garapen kulturala erdiesteko bidean berezko natura baztertu behar duelakoan daude. Horrela, bortxa, berezkoa izanik, alboratu beharrezkoa izaten da eta, izatekotan, bakar batzuen esku (nagusiak, agintariak...) utzi beharra dagoela diote. Horretaz aritu nintzen Eusko Ikaskuntzaren XI. Kongresuan (*Kultur-Etxeak Egungo Gizarte Pedagogiaren eremuan*, 1991):

Mendebaldarra deitutako Kultura gizarte honetako gizakumeok Izadiaren aurka eraikitako bizi-moldeen arabera ulertuta izan da. T. Hobbesen *Leviathan*engandik aurrera (1651) gizakien zeregin kultura natur legeetatik bereiztean datza. Edo beste eraz esanda, naturala den «indar gatazka» alboratu ahal izatea arrazoia

dela medio. Giza kultura garatuko da, beraz, gizaki guztion indar ahalmenak bakar batzuen esku uzten direnean. Hori dela eta geroxeago azalduko dugunez, Kultura zein Gizarteari buruz ohizkoak bihurtu zaizkigun planteamenduetan eskizofrenia nabarmena aurkitzen dugu. Hauek dira Gizartea eta Izadiaren arteko antinomiaren hamaika aurpegiak. Indarraren monopolio honen kontratik sortuko dira, besteak beste, iraultza burgesek (Britainia Handian nahiz Ameriketako iraultza antkolonialistak eta Frantziakoa) eragindako «unibertsalismoa» (503. or.).

Aipatu eskizofrenia hura (Gizartea versus Natura) eta hark bortxari buruz sorraraziko gogamena gainditu zuen Jose Azurmendik *Gizona abere hutsa da* (1975) liburuan eta, handik aurrera, bere diskurtsoaren oinarri bihurtu da *Gizaberearen bakeak eta gerrak* (1991) argitaratu zenetik.

Izkribu honen bidez aski frogatuta geratu da, nire ustez behintzat, orain berrikuntza gisa erabili ohi den Wranghamen proposamena (*The Goodness Paradox*, 2019), hau da, gizaki bakoitzaren barruan «natura basatia» dagoela animalia-biolentzia batean sustraituta eta, halaber, gure giza arbasoak elkarrekin konspiratzen hasi zirenean euren komunitateetan gizon nagusi oldarkorrak hiltzeko «koalizioaren eraso proaktiboak» zirela medio gizateria abiatu zela bere osotasunera ondorioztatuz, hori guztia, Azurmendiren hasierako izkribuetan bazegoela jadanik.

Joxe Azurmendiren *Manifestu atzeratuan* (1968) otsoak bortxaren metaforatzat aipatzen badira ere, emantzipazioaren aldeko pentsamendu poetikoan ez du *Gizaberearen bakeak eta gerrak* liburitik aurrera erabiliko duen esanahi berdinez egingo: «Gizona mendian dabilta otsoa bezala da... gizon honek ez du hil nahi... eta ez du hilda bizi nahi ere, librea nahi du... baina libertatea ez merezi, irabazi egin behar da».

Gogora dezagun, bide batez, bortxaren ikerlari bihurtu ziren hala Mikel Azurmendi Intxaustik («Ene Segurako aitona») nola Joseba Zulaikak berak ere («Adanen poema amaigabea») poesia idatzi zutela filosofia eta antropologia baino lehenago.

Filosofian, ordea, *Gizona abere hutsa da* liburua Joxe Azurmendik ezizenez kaleratu zuenean K. Lorenzen eragina agertzen da, hogeitau urte pasa ondoren kaleratutako *Gizaberearen bakeak eta gerrak* izenekoan berresten dena eta, finean, biolentziari buruzko bere diskurtsoan oro har, eta emantzipazioaren aldeko bortxa azaltzerakoan (ez bortizkeria ezta indarkeria ere deituz...) funtsezkoa suertatu zitzaion aurrerantzean.

Aipatu euskaldun taldea Alemanian Lorenz irakurtzen zegoelarik (*Sobre la agresión, el pretendido mal/Das sogenannte Böse*) Madrilen nengoen ni ikasten ere (1973/77) eta Lorenzen berri izan nuen (*Essais sur le comportement animal et humaine*, Seuil, 1970) unibertsitateko orduko giroan ohiko bibliografiatik kanpo. Irakurri ondoren aukera izan nuen Donostian, auzoko eskola batean zuzendari nengoela, «Cuerpo y Agresividad» izeneko ikerketa burutzeko, non, bistan da, Lorenzen itzala ezinbestekoa izan zen. Ikerketa hori Madrilgo Konplutentse Unibertsitatean Filosofia eta Hezkuntza Zientzien lizentziaturako tesia bihurtu zen (1985) eta baliagarria suertatu zitzaidan ulertzeko orduko nire ikasleek erakutsitako portaera bortitzak ez zirela, berez, zigorgarriak, askotan terapeutikoak

eta askatzaileak bezain bideragarriak baizik. Horrela lortu nuen bortxaren ohiko kondena kulturalaz askatzea neroni ere, oraindik orain, Richard Wranghamek bere *The Goodness Paradox* horretan baieztatu berri digunaren bidetik. Nago Jose Azurmendiren kasuan antzekoa suertatu zela.

Bibliografia

- Alvarez Santa Cristina, J.L. (1985): «Zenbait gogoeta boterea eta biolentzia politikoari buruz», *Larrun*, 2, 1985eko abendua, 71-79.
- Azurmendi Arrue, Haritz (2019): «Joxe Azurmendi, abertzaletasun kulturala», *Jakin*, 233/4.
- Azurmendi, Joxe (1975): *Gizona abere hutsa da*, EFA.
- , (1976): *Zer dugu Orixeren kontra?*, EFA Jakin.
- , (1977): *Zer dugu Orixeren alde?*, EFA Jakin.
- , (1991): *Gizaberearen bakeak eta gerrak*, Elkar.
- , (1997): *Demokratak eta biolentoak*, Elkar.
- , (1998): *Oraingo gazte eroak*, Enbolike.
- , (2001): *La violencia y la búsqueda de nuevos valores*, Hiru.
- , (2006): *Espainiaren arimaz liburuan*, Elkar.
- , (2012): *Barkamena, Kondena, Tortura*, Elkar.
- Denker, Rolf (1973): *Elucidaciones sobre la agresión*, Amorrortu.
- Dugatkin, Lee Alan eta Trut, Lyudmila (2018): *How to Tame a Fox and Build a Dog*.
- Fernández, Tomás R. (1978): «Culturas animales», *El Basilisco*, 1.
- Lorenz, Karl (1970): *Essais sur le comportement animal et humaine*. Seuil.
- , (1975): *Conversaciones sobre la nueva cultura*, Kairos, 160-165.
- Rodriguez, Fito (1991): *Kultur-Etxeak Egungo Gizarte Pedagogiaren eremuan*, Eusko Ikaskuntzaren XI. Kongresuan.
- Rodriguez, Fito eta Landa, Karmelo (2020): «Manifestu atzeratua», *Bioi, lagunarteko antologia*, Adhara, 45-55.
- Werckmeistere, Christina (2019): *Doce Miradas* bloga (2019/11/26).
- Wrangham, Richard (2019): *The Goodness Paradox*, Pantheon.
- Zulaika, Joseba (1990): *Violencia vasca: metáfora y sacramento*, Nerea.